botika
Información ciudadana sobre medicamentos

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Nº 61 / 2025
https://www.euskadi.eus/informacion-medicamentos-ibotika/

# SÍNTOMAS DE RESFRIADO Y GRIPE, ¿ES NECESARIO UN CÓCTEL ANTIGRIPAL?

**Los anticatarrales o antigripales son medicamentos que pueden ayudar a aliviar los síntomas del resfriado o de la gripe, pero no hacen que te cures antes, no combaten el virus que los causa.**




Se pueden adquirir en la farmacia sin receta médica. Suelen tener 3 o 4 componentes (principios activos), cada uno con una acción distinta, para así tratar varios síntomas a la vez:

- Antitérmicos o analgésicos para la fiebre o el dolor de cabeza, de garganta, de oído, muscular…
- Antihistamínicos para los estornudos y la secreción nasal.
- Descongestivos para la congestión nasal.
- Antitusivos para la tos.

## PERO ¿ES NECESARIO TOMAR TODO ESTO?

Habrá veces que sí, pero muchas veces será más adecuado un medicamento con menos componentes para tratar los síntomas predominantes o más molestos.

*Tomar medicamentos con varios componentes a la vez aumenta el riesgo de reacciones adversas, interacciones…*

Antes de tomar estos medicamentos es recomendable leer su prospecto y comprobar su composición por si tienes alergia a alguno de los componentes o ya estás tomando alguno de ellos para otro problema de salud (por ejemplo, el paracetamol).

## ADEMÁS…

no todas las personas pueden tomarlos:

- No están recomendados durante el embarazo y la lactancia.
- La mayoría no están indicados en menores de 12 años.
- Pueden no ser aconsejables en personas mayores o con enfermedades crónicas como: hipertensión, diabetes, enfermedades del corazón, tensión ocular, asma, hipertiroidismo, problemas de hígado, riñón o próstata.
- Pueden no estar indicados si hay problemas de estómago o si se toman algunos medicamentos como anticoagulantes…
- La mayoría pueden producir somnolencia lo que supone un peligro para conducir o utilizar maquinaria peligrosa.

Consulta con tu profesional de la salud si tienes dudas.

**Bibliografía:**
- CIMA: Centro de Información online de Medicamentos [Internet]. Madrid: Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios; 2017. Fichas técnicas antigripales.
- Cáceres Fernández-Bolaños R, Lucio-Villegas Menéndez ME. (09/01/2019). ¿Paciente crónico? ¡Cuidado con los antigripales! Blog de consejos saludables. Colegio oficial de farmacéuticos de Sevilla. [Consultado: 07/05/2024].

*Elaborado por:* Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Begoña Belarra, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, Mª José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Itziar Ochoa, Corpus Peral, Isabel Porras, Juan Uriarte y Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

*La información aquí contenida tiene únicamente finalidad informativa y en ningún caso sustituye las recomendaciones de tu profesional de la salud. Queda totalmente prohibido el uso de este documento con fines promocionales. ISSN: 2255-3177*

botika
Medikamentuei buruzko herritarrentzako informazioa
Osakidetza
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD
61.zk / 2025
https://www.euskadi.eus/medikamentuen-informazioa-ibotika/

# KATARROAREN EDO GRIPEAREN SINTOMAK, BEHARREZKOA AL DA MEDIKAMENTU KOKTEL BAT?

**Katarroaren edo gripearen aurkako medikamentuek sintomak arintzen lagun dezakete, baina ez zaituzte lehenago sendatzen, ez baitute gaixotasuna sortzen duen birusaren aurka egiten.**




Farmazian eros daitezke medikuaren errezetarik gabe. 3 edo 4 osagai (printzipio aktibo) izan ohi dituzte, bakoitzak akzio desberdin bat duela, hainbat sintoma batera tratatzeko:

- Antitermikoak edo analgesikoak sukarra jaisteko eta mina arintzeko (burukoa, eztarrikoa, belarrikoa, muskularra…).
- Antihistaminikoak dministikuentzako eta muki-jarioarentzako.
- Deskongestiboak sudurreko kongestioarentzako.
- Antitusiboak eztularentzako.

## BAINA, HORIEK GUZTIAK HARTZEA BEHARREZKOA AL DA?

Batzuetan bai, baina askotan aproposagoa da osagai gutxiago dituen medikamentu bat sintoma nagusiak edo desatseginenak tratatzeko.

> ***Hainbat osagai batera dituen medikamentu bat hartzeak ondorio kaltegarriak, interakzioak eta abar izateko arriskua handitzen du.***

Medikamentu horiek hartu aurretik erabilera-orria irakurtzea eta zer osagai dituen begiratzea komeni da, osagairen bati alergia baldin badiozu edo dagoeneko beste osasun-arazo bat tratatzeko osagaietakoren bat hartzen baldin baduzu (adibidez, parazetamola).

## GAINERA…pertsona guztiek ezin dituzte hartu:

- Ez daude gomendatuta haurdunaldian eta edoskitzaroan.
- Gehienak ez dira egokiak 12 urte baino gutxiagokoentzat.
- Baliteke ez izatea gomendagarriak pertsona nagusientzat edo gaixotasun kronikoak dituztenentzat, hala nola hipertentsioa, diabetesa, bihotzeko gaixotasunak, begiko tentsioa, asma, hipertiroidismoa, gibeleko, giltzurruneko edo prostatako arazoak dituztenentzat.
- Baliteke ez izatea egokia urdaileko arazoak edukiz gero edo beste medikamentu batzuk hartuz gero, hala nola antikoagulatzaileak…
- Gehienek logura sor dezakete, eta, beraz, arriskutsua izan daiteke gidatzeko edo makina arriskutsuak erabiltzeko.

Kontsultatu zure osasun arloko profesionalarekin zalantzaren bat baduzu.

**Bibliografia:**
- CIMA: Centro de Información online de Medicamentos [Internet]. Madrid: Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios; 2017. Antigripalen fitxa teknikoak.
- Cáceres Fernández-Bolaños R, Lucio-Villegas Menéndez ME. (09/01/2019). ¿Paciente crónico? ¡Cuidado con los antigripales! Blog de consejos saludables. Colegio oficial de farmacéuticos de Sevilla. [Kontsulta: 2024/05/07].

*Egileak:* Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Begoña Belarra, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, Mª José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Itziar Ochoa, Corpus Peral, Isabel Porras, Juan Uriarte eta Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

*Fitxa honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta inola ez ditu ordezkatzen zure osasun arloko profesionalak emandako gomendioak.*
*Guztiz debekatuta dago dokumetu hau promozio helburuetarako erabiltzea.* *ISSN: 2255-3177*
CC BY NC SA